

Jaialdia Poltsiko Antzerkia

20  25





Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

Kultura etxeek **Poltsiko Antzerkia jaialdiaren** 34. edizioaren balorazio positiboa egin zuten, antolaketari zein herritarren erantzunari dagokienez. Edizio honetan, 2.332 ikuslek gozatu zuten antzerkiak, umoreaz, magia, ilusionismoaz eta musikaz, maiatzaren 8tik 25era.

Entretenezko eta harritzeko helburuz, 2025eko edizioko programazioak antzerkia, umorea, magia, ilusionismoa, bakarrizketak eta musika izan zituen osagai nagusi. Tabernetan eta ez-ohiko beste espazio batzuetan aritu ziren **Asis Hansson**, **Belén Nevado**, **Lorena Arangoa**, **Aintzane Baleztena** eta **Virginia Imaz** artistak, besteak beste. Gainera, edizio guztietan bezala, bi hizkuntza ofizialen eta gizon eta emakumeen presentzia orekatzen saiatu ziren antolatzaileak.





**POLTSIKO
ANTZERKIA**
TEATRO
DE BOLSILLO

La maja y la mona, Aroa Berrozpe & Susana Soletto © Iñaki Rubio

Guztira, 16 konpainiak beste horrenbeste ikuskizun eskaini zituzten 31 emanalditan; horietatik 8 erabat emakumez osatuta, lau gizonez osatuta eta beste lau mistoak izan ziren. Hiriko 27 espazio ezberdinetan banatu ziren ikuskizunak.

Publikoak oso harrera ona egin zien emanaldiei. **Poltsiko Antzerkia Jaialdiak** hutsik egin ez zuten jarraitzaile leialak ditu, eta ikusle asko elkartu ziren berriro, Donostiako kultura-programazioaren barruan dagoeneko finkatuta dagoen jaialdi honetan.

Kultur etxeek egunez egun egiten duten lanaren erakusgarri izan zen jaialdia; herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak izanik, bestelako begirada bat eman zieten hiriko kultura-programazioei.

Azkenik, jaialdiaren itxierarekin, **XVI. Poltsiko Sorkuntza lehiaketarako** deialdia jarri zen martxan; lehiaketa horren helburua da formatu txikiko antzerkiaren esparruan euskarazko eskaintza sustatzea.



Bihotz, bi hots, bi txotxi!, Garazi San Martin © Iñaki Rubio



La Maga, Dania Díaz © Iñaki Rubio



Inprofestakzioa, Garazi San Martin, Xabier Artieda, Xabier Flamarike © Iñaki Rubio